

La Batalla de Andoain
16 de septiembre 2017 - 17:15
La bataille d'Andoain
16 Septembre 2017 - 17:15
Die Schlacht von Andoain
16. September 2017 - 17:15
The battle of Andoain
September 16, 2017 - 17:15
ANDOAINGO GUDUA
ANDOAINGO 1837 GUDUA
1837-09-14
ANDOAIN 2017, IRAILAK 16, LARUNBATA


Soinuak
Doktor Huitzi, 6 - Andoain
soinuak@soinuak.net
www.soinuak.net
676 198 661
SOINUAK MUSIKA ESKOLA


MARTA
DELGADO
GÓMEZ
PEDAGOGIA ETA
BITARTEKARITZA
IKUSPEGI SISTEMIKOTIK
Haur, nerabe eta helduei zuzenduta
KONTSULTAK
688 865 708
delgadogomezmarta@gmail.com


TXAPELAK, BANDERAK, ERA GUZTIETAKO BORDATUAK, BLUSAK, TXILEKOAK ETA BASERRITAR JANTZIAK
KEINU
Kale Nagusia, 12
ANDOAIN
943 02 96 76
637 28 32 24
keinu.andoain


IÑAXI
1970etik gaur arte kalitatez
zuen zerbitzura
943 590 303
Agustin Leitza, 5. Andoain

ANDOAINGO 1837 GUDUA

# 1837KO IRAILAREN 14AN GERTATUTAKOA GOGORA EKARRIZ

© MANUEL LARRAMENDI KULTUR BAZKUNA

**Antolatzaile**
Organiza:

M. LARRAMENDI 25 urte ekintzez bete

**Babesle**
Patrocina:

ANDOAINGO UDALA
Kultura Lansaila

Gipuzkoako Foru Aldundia
Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamendua

**Partaide**
Participan:

Peña Santa Kruz Elkartea, Zumeatarra Elkartea. Alberto Agirre Abesbatza, Andoaingo Musika Eskolako Abesbatza, Andoaingo Txistulari Banda, Belkoainberri Elkartea, Soinuak Musika Eskola, Punttuka Bertso Eskola, Ontza Elkartea, Hogar Extremeño.

**Laguntzaile**
Colaboran:

Asociación Urgull Histórico

Asociación Blas de Lezo

Asociación de Recreación Histórica "Batalla de Vitoria 1813"

Kañoieta Elkartea

Andoaingo Gurutze Gorria

# AVISOS PARA LOS VECINOS Y PÚBLICO EN GENERAL

## ESCENARIOS

Serán dos los escenarios principales, donde los espectadores podrán seguir varias dramatizaciones. En la plaza Zumea dará comienzo a las 17:15, con la concentración del ejército carlista acompañada por el paisanaje de Urnieta y Andoain huido de los caseríos. Allí, tras una breve dramatización, iniciarán su avance los carlistas.

Casi al mismo tiempo, a las 17:30, se concentrarán en Goikoplaza las tropas liberales tras un breve recorrido por Arantzibia y Kaletxiki. Allí también, tras una breve recreación, dará comienzo el avance liberal hacia la ermita de la Santa Cruz, donde hallarán al enemigo carlista.

Frente a la iglesia de la Santa Cruz se producirá el primer combate entre los contendientes, que se prolongará por toda la Calle Nueva. A la altura de Bastero serán fusilados los prisioneros liberales y la espía Atanaxi. La recreación terminará en Goikoplaza, frente a la iglesia de San Martín sobre las 19:30 horas.

## TRÁFICO

A medida que el espectáculo transcurra por las calles de Andoain, estás serán cerradas al tráfico de vehículos, por lo que no se podrá circular por las mismas. Según finalice en dichos espacios públicos la Policía Municipal volverá a abrir los mismos al tráfico de vehículos. Quedará especialmente afectada toda la zona intermedia entre Goikoplaza y plaza Zumea (Calle Mayor y Calle Nueva). El servicio de autobús urbano e interurbano también se verá afectado por dichos cortes.

## NORMAS DE SEGURIDAD

Durante el espectáculo se hace uso de armas de fuego reales, aun cuando sólo sea para disparar salvas de pólvora. Dichas armas podrían provocar un accidente, por lo que se ruega al público mantengan las distancias dispuestas por la organización con los fusileros, dado que es cuestión de suma importancia.

## PUBLICACIONES

La Batalla de Andoain es un hecho histórico. Si desea abundar información sobre la misma, consulte:

- Revista Leyçaur. Nº 1: *La primera Guerra carlista en Andoain*; Karmele Otaegi.
- Papeles de Andoain, nº 9: *Sorabilla, testigo de la destrucción de las Guerras carlistas*. Joseba Salbador.
- *La Batalla de Andoain*. Miguel del Rey y Antonio Canales.
- Lekukotzak, nº 9 y 10: *Lehenengo karlistaldia*. Jon Unanue.
- Lekukotzak nº 11: *Andoaingo gudua*. Jon Unanue (de próxima aparición).

Todas las obras a la venta en las librerías de Andoain.

# HERRITAR ETA, ORO HAR, IKUSLEENTZAT OHARRAK

## AGERTOKIAK

Bi agertoki nagusi izango dira, eta, bertan, hainbat antzezpen ikusi ahal izango dute ikusleek. Zumea plazan, 17:15etan, gudaroste karlista elkartuko da, eta han izango dira ere Urnieta eta Andoaingo baserrietatik ihes egin duten baserritarrak. Hor, antzezpen labur baten ondoren, hasiko dute bere ibilbidea karlistek.

Ia aldi berean, 17:30etan, Goikoplazan liberalak elkartuko dira, Arantzibia auzunean eta Kaletxikin itzuli bat egin ondoren. Bertan, beste antzezpen labur batekin, liberalen ibilaldia hasiko da Gurutze Santuaren elizatxo aldera. Zubian egingo dute aurrez aurre karlistekin.

Gurutze Santuaren elizatxoaren aurrean izango da lehen borroka eta hori Kale Berri osoan barrena luzatuko da. Bastero parean fusilatuko dituzte karlistek soldadu liberalak eta Atanaxi salataria. Goikoplazan, San Martin elizaren atarian, amaituko da ikuskizuna 19:30ak aldera.

## TRAFIKOA

Ikuskizunak Andoaingo kaleetan aurrera egin ahala kale horiek guztiz itxita egongo dira eta ezingo da ibilgailuz joan-etorririk egin. Ikuskizuna herrigune horietan amaitu ahala zabalduko du berriro bidea Udaltzaingoak. Bereziki ukituriko lekuak izango dira Goikoplaza eta Zumea plaza lotzen dituzten kaleak (Kale Nagusia eta Kale Berria). Autobus zerbitzuak ere itxialdi horien araberako gorabeherak izango ditu (hiribarrukoak eta hiriartekoak).

## SEGURTASUN ARAUAK

Ikuskizunean benetako armak erabiltzen dira, sutautsa (bolbora) lehertzeko besterik ez bada ere. Arma horiek istripuren bat eragin dezakete. Horregatik, biziki eskatzen zaie herritar eta ikusleei zain dezatela antolatzaileek ezarritako tartea fusilariengandik, garrantzi handikoa baita.

## ARGITALPENAK

Andoaingo gudua gertakari historia da. Horri buruz azalpen zabalagoa jasotzeko ikus:

- Leyçaur aldizkaria. 1 zenbakia: *La primera Guerra carlista en Andoain*; Karmele Otaegi.
- Andoaingo paperak 9: *Sorabilla karlistaldien hondamendiaren lekuko*. Joseba Salbador.
- *La Batalla de Andoain*. Miguel del Rey eta Antonio Canales.
- Lekukotzak 9 eta 10. zenbakiak: *Lehenengo karlistaldia*. Jon Unanue.
- Lekukotzak 11 zenbakia: *Andoaingo gudua*. Jon Unanue (aurten argitaratuko da).

Denak Andoaingo liburudendetan salgai.

# *1837ko irailaren 14a*

1837. urteko irailaren 14an, egunsentiaren lehen argiak oraindik Andoainera iristear zirela, bostehun bat gizon, karlista txapeltxuri eta txapelurdinak, Oria aldetik Urnietako Arrikarten barrena igaro eta Andoain aldera jaitsi ziren, bertan ziren soldadu liberalei eraso eginez. Liberalen buru zen O'Donell jeneralak, eraso haren zain, bere soldaduak bidali zituen karlistak uxatzera. Baina karlisten buru zen Uranga jenerala bizkor ibili zen eta herriaren beste muturrean, Leitzaran ibaiko Unanibiko parajean, mila txapeltxuri eta txapelurdin inguru jarri zituen borrokan goizeko seiak aldera, Sorabilla aldetik karlisten kanoiek su eta tunba egiten hasi ziren aldi berean... Horrela hasi zen irailaren 14 hartan Andoaingo herrian eta aldirietan 600 eta 800 hildako inguru utzi zituen gudu ikaragarria, Andoaingo gudua izenarekin ezagutzen dena I Gerra karlistari buruzko historiografian.

Karlos V. erregegaiaren aldeko gudarosteek (karlistek) 3.500 gizon elkartu zituzten Andoainen, eta Isabel II. erreginaren aldekoek (edo agintean zegoen Maria Cristina bere amaren aldekoek), berriz, 7.000tik gora, horietako asko Britaniar Brigadakoak, Isabel II.aren alde borroka egitera Erresuma Batutik



etorritakoak. Esan bezala, egunsentiaren aurretik Buruntza aldean eta Leitzarango Unanibia aldean hasitako borrokari ongi eutsi zioten liberalek, baina, halako batean, O'Donell jeneralak, arrazoi agerikorik izan gabe, Unanibia aldean suhar borroka egindako Gerona errejimenduko soldaduak atzera bidali eta, horien ordez, Infanta errejimendukoak aurrera bidali zituen, azken horiek gazte bizargabeak. Karlistek Unanibia aldean egindako bigarren eraso baten aurrean, ordea, izutu eta armak bertan behera utzita antxintxikan atera ziren herrigune aldera, gero ihesean Hernani aldera jarraitzeko.

Hori gertatu ahala, goiza aurrera zihoala, karlistek bere eraso nagusia jo zuten, orain Andoaingo bihotzean, Gurutze Santuaren zubian. Oso arrisku handiko erasoa zubiaren beste aldea zaintzen zuten soldadu irlandar eta eskoziarren kontra egin beharrekoa... Baina erasoa hasi orduko, irlandar eta eskoziarrak jabetu ziren Leitzaran aldetik Leizaur jauregirantz Infanta errejimenduko soldaduak korrika zetozela ihesi eta, hori ikusirik, izuak jota ez ziren zubia defenditzeko gauza izan eta karlistek, indar handiz, zubian barrena Kale Nagusian aurrera egin zuten, bidean hildako mordoa utziz...

Liberalak ihesi, Kale Nagusian gora Goikoplazara iritsi eta soinean zituzten armak eta trepetak bertan behera utziz Kaletxikin barrena ihesi egin zuten, Urnieta eta Hernani aldera, karlisten hatsa lepondoan nabari zutela... Baina haietako batzuek, Gurutze Santuaren zubia zaintzen gelditurikoirlandar eta eskoziarrek hain zuzen ere, San Martin elizan babesa hartu zuten, leku sakratua izanik, salbu zirelakoan.

Alferrikakoa izan zuten ahalegina ordea...



# ZER IKUSIKO DUZUN

Andoaingo gudua izeneko ikuskizuna Andoaingo kaleetan barrena gertatzen da, 1837. urteko irailaren 14an gertatu zenaren oso antzera. O'Donell jeneralaren gudaroste liberalak Goikoplazan izango du kanpalekua, eta bertatik aterako dira Gurutze Santuaren ermita eta zubi aldera.

Zumea plazan, berriz, karlistak elkartuko dira, Uranga jeneralaren agindupean, batzuk –Uranga bera– Nafarroatik iritsi berriak Amasan barrena. Karlistekin batera Andoainen liberalek aurreko egunetan erretako 61 baserrietako herritarrak izango dira, beldurtuta batzuk, suminduta besteak aurreko egunetan bizi eta ikusi dutenagatik. Andoaindarrekin batera urnietar pila dago, baita hernaniarrik ere, horiek denak ere ihesi etorrita Oria eta Leitzaran ibaien beste aldera babes bila, liberalek aurrera egin ahala.

Karlistek Gurutze Santu aldera joko dute zubian borroka egin eta Andoaingo kalea berreskuratzeko. Liberalak zubia defenditzera azalduko dira. Zubi horretan baitago guduaren koska...

## ZUMEA PLAZAN KARLISTAK (17:15)

Zumea plazan soldadu karlistak eta herritarrak elkarrekin daude, Uranga jenerala iritsi eta karlistek erasoa egin zain. Herritarrak, ihesi etorritakoak asko, suminduta daude eta kontatzen ari dira liberalek Hernanitik Urnietan barrena Andoainera etorri ahala egindako barrabaskeria guztiak. Herritarren artean Atanaxi dago, kinkila-saltzailea eta liberalen zelataria, prest karlistei buruzko informazioa jaso eta liberalei saltzeko.

Herritarrek bere ondoeza eta amorrua adierazita, halako batean, turutak jo eta Uranga jenerala iritsiko da, bere artileriarekin. Bere gudarosteak ohorez agurtu bitartean ikuskatu egingo du jeneralak, ondoren su egitea agindu, *Gora Don Carlos* kantatu eta jeneralak bere hiltzaldia egingo du.

Ondoren, Gurutze Santuaren zubirantz bideratuko du bere tropa Urangak, *Agur Gurutze Santu* kantatzeko iritsi ahala.

## GOIKOPLAZAN LIBERALAK (17:15)

Goikoplazan, liberalak daude kanpalekuan, O'Donell jenerala buru. Liberalen artean, Donostiako bolondres txapelgorriak, Isabel erreginaren aldekoak; gudaroste espainiarreko soldaduak eta, azkenik, Brigada britainiarra, ingelesek, eskoziarrek eta irlandarrek osatua.

Hain zuzen ere soldadu ingeles batzuk mozkorturik azalduko dira plazan dagoen tabernan, harroturik Hernanitik Andoainera Urnietan barrena egindako bidean erre dituzten baserrietan lapurturiko ondasunengatik. Halako batean koronel ingelesa azalduko da gauzak bere lekuan jartzera, baita kontuak eskatuko dizkion Gerona bataloiko kapitaina ere... Azkenean, O'Donell jeneralak gauzak bere lekuan jarriko ditu eta Atanaxi zelatariaren albisteak jasoko ditu, ustez albiste larriak...

Azkenik, Kaletxikin gora gudaroste liberal osoa iritsiko da, plazan tropa osatu eta O'Donellen zain geldituko da, zeina zaldiz agertuko baita, tropa ikuskatu, sujasa egin, *Biba Isabel, gora Kristina!* kantatu eta bere hitzaldia egiteko soldaduei. Hitzaldiaren ondoren, Gurutze Santuaren zubi alderantz jotzea aginduko du.

## GURUTZE SANTUAREN ZUBIAN (17:50)

Barrikadaz itxitako Gurutze Santuaren zubia zaintzen ari dira txapelgorriak. Halako batean karlistak azalduko dira zubiaren beste aldetik erasoari ekiteko prest. Lehenengo tiroak... Kale Nagusian barrena O'Donell jenerala azalduko da bere gudaroste osoarekin plaza defenditzera. Karlisten artileriak su egingo du eta borroka hasiko da, fusilen sua lehenik eta, azkenik, fusilen baioneta... Karlistek zubia zeharkatu eta liberalak gaindituko dituzte, Bekoplazan barrena Kale Berrira jotzeko. Hasi dira liberalak ihesi...

## KALE BERRIAN (18:00)

Soldadu karlisten atzetik datoz herritarrak, dena galdu duten baserritarrak oinazeak eta amorrazioak jota, oihu batean mendeku eske: *ez da kuartelik su ematen dutenentzat!!* Kale Berrian barrena borrokak jarraituko dute, tiroek, baita liberalekin doazen jarraitzaileen kantek eta karlistekin doazen herritarren kantek ere. Juan Bautista Erro parera iritsita, berriz baionetaz egingo dute eraso karlistek, eta liberalek, oldarraldiari eutsi ezinik, gero eta bizkorrago helduko diote ihesari. Buruz buruko borroketan hilik gertatzen ez direnak preso hartuko dituzte.

## JUAN BAUTISTA ERROKO ZABALA-ENEAN (18:30)

Juan Bautista Erro kaleko Zabala-enea etxean izan zuten karlistek bere kuartela, beraz, inguratu ahala koartela berreskuratzeko borroka egingo dute. Bertara iristean, herritar batek Zabala-eneatik *goigoiko jeneralburuaren* bandera (Ama Guztiz Garbiarena) eskatuko die karlistei eta bandera hori daraman ofiziala igo egingo da Zabala-enera bandera ipintzera berriro ere bere kuartelean. Horretan dihardutela, herritarrek Atanaxi zelataria ezagutuko dute jendearen artean eta preso hartu...

## BASTERON (18:45)

Atanaxi zelataria eta preso hartutako soldadu liberalak fusilatu egingo dituzte Basteroko plazatxoan. Alferrik egingo diete erregu agintari karlistei, alferrik gogoraraziko diote kapitainari Elliot izeneko hitzarmena presoen eskubideak babesteko... Herritarren mendeku goseak ere ez dio aukerarik uzten kapitain karlistari, *su eman dutenei su eman behar baitzaie...*

## GOIKOPLAZAKO ELIZAURREAN (19:00)

Liberalek atzera jarraitzen dute Goikoplazaraino eta iristean, ingeles, eskoziar eta irlandar ugarik, baita soldadu espainiar batzuek ere San Martin elizan hartzen dute babes, leku sakratua izanik euren bizitzak salbu direlakoan. Karlistak jada plazan dira eta liberalak Kaletxikin behera ihesi. Elizan daudenak bandera zuria aterako dute balkoian, bere burua errenditzeko. Karlistek eliza inguratu eta aterarazi egingo dituzte bertan daudenak, eta irtetean, guztiz suminduta eta amorrarazita datozen herritarrek erasotu egingo dituzte soldadu liberalak, elizaurrean bertan asko akabatuz. Odol isuri luze batek arrastoa egingo du Kaletxikiraino...

Triskantza hori gertatu bitartean, Andoaingo alkatea azalduko da plazan, herrikideei oihuka eskatuz geldi daitezela, amai dezatela eraso hori, nahikoa dela liberalek herrian sortu duten hondamendiarekin... Azkenik, Goikoplazan dauden guztiek, hildakoak aurrean dituztela, *Begira Andoain* kantatuko dute amaiera gisa. Azken su-jasa batek emango dio amaiera ikuskizunari.

# ¿QUÉ VAMOS A VER?

La recreación de la Batalla de Andoain se desarrolla a lo largo del casco urbano de Andoain, de forma similar a los hechos que acontecieron el 14 de septiembre de 1837. Las tropas del general O'Donell se encontraban, en parte, acampadas en Goikoplaza, desde donde partirán hacia el puente y la ermita de la Santa Cruz.

Por su parte, los efectivos carlistas se concentran en la plaza Zumea a las órdenes del general Uranga; parte de ellos –el propio Uranga– recién llegados desde Navarra a través de Amasa. Junto a los carlistas encontramos un amplio grupo de paisanos huidos los días precedentes de las 61 caserías incendiadas por los liberales. Los encontramos asustados unos, furiosos otros, por lo que les ha tocado vivir y sufrir en sus personas y haciendas. Junto a los de Andoain, se hallan muchos procedentes de Urnieta, incluso de Hernani, huidos también ante el avance liberal en busca de refugio tras las líneas carlistas más allá de los ríos Oria y Leitzaran.

Los carlistas avanzarán hacia la Santa Cruz para luchar en el puente y recuperar el casco urbano de Andoain. Los liberales acudirán en defensa del puente, acceso clave al núcleo del municipio...

## LOS CARLISTAS EN LA PLAZA ZUMEA (17:15)

En la plaza Zumea confraternizan soldados carlistas y vecinos, a la espera de la llegada del general Uranga para ordenar el ataque. El paisanaje, formado en gran parte por los huidos, se halla colérico y relata todas los atropellos y violencia cometidos por los liberales según avanzaban desde Hernani hasta Andoain a través de Urnieta. Entre los paisanos se encuentra Atanaxi, una buhonera que ejerce de espía para los liberales, esperando obtener valiosa información que transmitir.

Tras manifestar los paisanos toda su frustración y rabia por lo ocurrido, al toque de trompeta hace acto de presencia el general Uranga, con su artillería. Sus tropas le rinden honores a medida que les pasa revista, para, después, ordenar el disparo de una salva y cantar el *Gora Don Carlos*, antes de que el general dirige una alocución a sus soldados.

Tras las palabras del general, éste ordena el avance de sus tropas hacia el puente de la Santa Cruz, cantando durante el trayecto el *Agur Gurutze Santu*.

## LOS LIBERALES EN GOIKOPLAZA (17:15)

En Goikoplaza se halla acampadas las tropas liberales, con O'Donell al frente. Es una tropa heterogénea, formada por los voluntarios txapelgorris de San Sebastián, partidarios de la reina Isabel; por diverso contingente militar español y, finalmente, por la Brigada británica, participada por ingleses, escoceses e irlandeses.

Precisamente, una primera escena nos muestra a unos ingleses borrachos en la cantina de la plaza, ufanos por el pillaje cometido en los caseríos destruidos en su avance desde Hernani a Andoain a través de Urnieta. Repentinamente se presente un coronel inglés, que los reprende, a la vez que hace acto de presencia un capitán del batallón Gerona para censurar el comportamiento de los aliados... Finalmente, el general O'Donell pone orden en la escena y recibe el parte de la espía Atanaxi, ciertamente inquietante...

Por fin, llega desde Kaletxiki la tropa al completo a la plaza, para formar y rendir honores al general, descargar una salva, cantar el *Biba Isabel, gora Kristina!* y escuchar una ardiente alocución de su mando supremo antes de partir a defender el puente de la Santa Cruz.

## EN EL PUENTE DE LA SANTA CRUZ (17:50)

Los txapelgorrias vigilan el puente de la Santa Cruz. Súbitamente, hacen acto de presencia los primeros efectivos carlistas, dispuestos a dar batalla desde el otro lado del puente. Suenan los primeros disparos... A través de la Calle Mayor llega O'Donell con su tropa a socorrer el puente. La artillería carlista abre fuego, también la fusilería para, finalmente, cargar a la bayoneta... Los carlistas atraviesan el puente y sucumbe la defensa liberal, que huye por Bekoplaza hacia la Calle Nueva... Ha comenzado el descalabro liberal...

## EN KALE BERRIA (18:00)

Tras el contingente carlista atacante avanzan los vecinos, muchos de ellos paisanos conmovidos y encolerizados por haberlo perdido todo, clamando venganza al grito de: *ez da kuartelik su ematen dubenentzat!! (¡No hay cuartel para los incendiarios!)* La lucha continuará a través de la Calle Nueva, seguirán los tiros y también los cánticos del séquito liberal y de los vecinos acompañantes de los carlistas. Al llegar a la altura de la calle Juan Bautista Erro, habrá una nueva carga a la bayoneta por parte de los carlistas, y los liberales, no pudiendo hacer frente ya a la embestida, huirán en desbandada. Quienes no mueran en el cuerpo a cuerpo, caerán presos.

## ZABALA-ENEA EN JUAN BAUTISTA ERRO (18:30)

La casa Zabala-enea de la calle Juan Bautista Erro fue el cuartel de los carlistas durante la primera guerra, por lo que, a medida que lo alcanzan, luchan por recuperarlo. Al conseguir su objetivo, una paisana reclama a los carlistas desde Zabala-enea la bandera de la *Generalísima* (Inmaculada Concepción), con lo que el oficial que la porta asciende hasta la casa para hacerla ondear de nuevo en el cuartel. Es entonces cuando los vecinos recién llegados reconocen entre la muchedumbre a la espía Atanaxi, que es apresada...

## BASTERO (18:45)

Atanaxi es conducida con otros soldados liberares presos a la plazoleta de Bastero, donde serán todos fusilados. Proclaman inutilmente su inocencia, e imploran en vano el convenio Elliot para la salvaguarda de los soldados. El capitán carlista ordena su ejecución ante una muchedumbre que clama venganza y *¡fuego para los incendiarios!*

## EN LA ANTEIGLESIA DE GOIKOPLAZA (19:00)

Continúa la retirada liberal hasta el campamento de Goikoplaza y a su llegada soldados ingleses, escoceses e irlandeses se refugian en lugar sagrado, en la iglesia de San Martín, con la esperanza de que así salvarán sus vidas. Los carlistas se encuentran ya en la plaza y el resto de liberales huye Kaletxiki abajo. Los refugiados en la iglesia enarbolan la bandera blanca en el balcón. Los carlistas rodean el templo y les obligan a abandonar el mismo, momento en el que el paisanaje enfurecido arremete contra ellos, matando a un buen número en la anteiglesia. Un reguero de sangre se abre paso hacia Kaletxiki...

En tanto, llega el alcalde de Andoain a la plaza, quien a gritos impele a sus vecinos a que abandonen la violencia, invitándoles a reflexionar ante la destrucción provocada en el municipio por la batalla... La reacción ante los muertos y tamaña destrucción será entonar el *Begira Andoain* como epílogo del acto. Una última salva señalará el final del espectáculo.

# GORA DON CARLOS!

Gora Don Carlos! Biba Don Carlos!
Gora Don Carlos haundia!
Errege prestu, kristau zintzoa,
Jaungoikoaren Grazia.
Gure Foruak defendatzeko
hitza eman du garbia;
betetzearren isuriko deu
daukagun odol guztia.

Giristinoak aurrez aurre noiz
izango ditteun gaude zain;
Beldurrik ez da gure gogoan,
suhar bihotza degu bai!
Uxa ditzagun tiro emanez
doilor ustel hoiek ja-jai!
Laban zorrotzaz tripak aidean...
Dabiltzala, beraz, ernai!



Musika: J. Oiartzabal
Hitza: J. Unanue



# BIBA ISABEL! GORA CRISTINA!

Biba Isabel! Gora Cristina!
alaba ta ama erreginak;
Libertadea ematekotan
tronoan ditteu jarriyak.
Carlos traidore horrek, ordea,
asmoak ez dauzka berdinak
morrontzapean gu akabatzeko
hil nahi lituzke bi-biyak (bis)

Bele beltz horien gonen azpian
bizi zerate izkutuan,
apaiz, frailea ta moja baizik
ez dezuela buruan.
Esos farsantes a nuestra Reina
vencerla ya jamás podrán,
jakingo dute esos ladrones
Doña Cristina bai, nor dan! (bis)



Musika: J. Oiartzabal
Hitza: J. Unanue



# Agur Gurutze Santu!

Agur Gurutze Santu
babes gaitzazu arren
giristino beltz hauek
uxatu baino lehen.
Adorea behar degu
gaur gailen gaitezen;
jende doilor honentzat
bego inpernua hemen! (bi)

Gure Fedea eta
Foru maitatuak,
defendatzeko gera
honaino deituak;
erregin ama horren
grina txar galduak,
pagaraziko dizkau
bere pekatuak. (bi)

Goazen orain aurrera
indarrez beteta,
zubian barna estu
fusila helduta
Gurutze Santu hori
fede osoz gurtuta;
heriori beldurra
kemenez ahaztuta. (bi)





Musika: J. Oiartzabal
Hitza: J. Unanue



# Askatasuna eman deigun

Askatasuna eman deigun
Gipuzkoa osoari
Askatasuna eman deigun,
Probintzia leial honi
¡Viva la Libertad!
¡Muerte a la usurpación!
La Soberanía al Pueblo,
muera hoy la traición.



Luchemos por la Reina,
ya llegan sus reformas,
Europa entera anhela
nuestra liberación.
Progreso y Libertad
serán eternas normas;
y luchando obtendremos
la total redención.



Y vosotros rebeldes,
si osáis hacernos frente,
atacando el trono
de nuestra Reina Isabel;
probaréis sin tardanza,
de este fusil el plomo,
y heridos ya de muerte
os rendiréis ante él.

Musika: J. Oiartzabal
Hitza: J. Unanue



# HILDAKOAK GURI BOST!

Gora, gora, gora Don Carlos!
Gora Don Carlos!, gora Don Carlos!
Gora, gora, gora Don Carlos!
Hildakoak zenbat guri bost!

Iritsi ziren tiro eta su
gu makurtzera haien menpe,
etorritako bidean doaz
askok, baina, lurra jan dute!

Erre dituzte baserriak eta
soro asko galdu dituzte;
ez nuen seme-alabak baina
gaur biziko zirenik uste!

Gora, gora, gora Don Carlos!
Gora Don Carlos!, gora Don Carlos!
Gora, gora, gora Don Carlos!
Hildakoak zenbat guri bost!

Uranga dator Nafarroatik
gure mutil guztik oldartuz,
giristinuei kolpe batean
baionetaz erraiak le(he)rtuz.

O' Donell bera larri ibili da
txapela eta zaldia galduz;
bizi eta salbu da orain baina
Hernaniko zuloan sartuz.

Gora, gora, gora Don Carlos!
Gora Don Carlos!, gora Don Carlos!
Gora, gora, gora Don Carlos!
Hildakoak zenbat guri bost!



Musika: J. Oiartzabal
Hitza: J. Unanue



# BEGIRA ANDOAIN

Begira Andoain, herri fier hauxe,
suak errautsetaraino ekarria;
begira Andoain, odoletan blai da
arrotzen koldarkeriak isuria.
Begira Andoain, sutondorik ba ote
ez dabilenik nonahi mokadu bila?
Guztizko hondamendi, suak eta odolak,
aterpetu baitute herio isila.

Baina hor da Andoain, zutik hala ere,
bizi beharrari gogoz ekiteko;
zauri zornetsuak mina baitagio
hildako asko dira belaxe a(ha)zteko.
Arbasoen hatsak suspertuko gaitu
Herri honen izana eraikitzeko;
jaso ditzagun gaur etxe-baserriak
Andoaini kemen berria emateko.

Gure aiurria umo dezagun bai!,
biharko askatasuna gaur ereiteko.
Begira Andoain, herri fier hauxe!!
suak errautsetaraino ekarria!!



Musika: J. Oiartzabal
Hitza: J. Unanue



# Agertokien planoa




**Liberalaren hasierako ibilbidea**
Recorrido liberal previo

**Aurrerabide liberalaren ibilbidea**
Recorrido avance liberal

**Aurrerabide karlistaren ibilbidea**
Recorrido avance carlista

**Gurutze Santuaren zubian eta beste leku batzuetan borroka**
Choque en el puente de la Santa Cruz y otros

**Liberaren erretirada eta karlisten aurrerabidea erasoan**
Retirada liberal y avance en ataque carlista

**17:15**

**Elkarreratze karlista Zumea plazan**
Formación carlista en Zumea plaza

**17:15**

**Elkarreratze liberala Goikoplazan**
Formación liberal en Goikoplaza

# (PLANO DE LOS ESCENARIOS)




P **La Salleko aparkalekua**
Aparcamiento de La Salle

BP **Belabiko aparkalekua**
Aparcamiento en Belabi

AP **Aingurasutegiko aparkalekua**
Aparcamiento en Aingurasutegi

B **Bastero**

U **Ayuntamiento**
Udaletxea

A **Urigain kultur etxea: arma-antzezleentzat aldagelak**
Casa de cultura Urigain: vestuario recreacionistas

L **Osasun eta larrialdietako laguntza-gunea**
Puesto de socorro: emergencias y sanitarios

# Partaideak (participantes)

## KARLISTEN GUDAROSTEA (Ejército Carlista)

Mikel Agirregomezkorta (Uranga jenerala)
Juan Guardamino (brigadierra)
Jose Inazio Garmendia (laguntzailea)
Jose María Tuduri (koronela)
Aitor Amutxastegi (kapitaina)

**TXAPELTXURIAK / TXAPELURDINAK:**
Joxan Jalón (sarjentoa)
Mikel Ibarguren (kaboa)
David Urtasun, Andoni Aldasoro, Fernando Pérez de Mendiguren, Jokin Esnal, Mª Jesus Larrarte, Xabier Ibarguren, Joxe Mendiluze, Gaizka Amas, Ramon Pineda, Cesar Sistiaga, Pablo Pérez Cocaña, Andoni Arizala, Fco. Javier Dávila, Lurdes Jauregi, Ixiar Jauregi, Mari Patxi Villalba, Joxe Ramon Jauregi, Mertxe Zatarain, Prudencio Rubio, Ricardo Cayetano, Alberto Rodríguez, Felipe Millán, Gurutz Irigoras.

**ANDIA KULTUR ELKARTEA (TOLOSA):** Emilio Latorre, Sergio Limousin, José Ángel Calvo, Antonio Limousin, Martín Ortiz, Eneko Tuduri, Jabier Barrenetxea, Esther Sepúlveda, Lourdes Garmendia, Ana Isabel Garicano, Maite Díez de Uré.

**KAÑOIETA ELKARTEA (DONOSTIA):** Joaquín Espinosa, Gonzalo Rodríguez, Rafa Caballero, Iurgi Molinuevo, Iñaki Txakartegi, Gabriel Otegi.

**(ABUZTUAK 31 ELKARTEA):** Miguel Angel Arenas , Hilal Nassar, Miguel Ángel Arrieta, Gonzalo García, Ángel María Ayestaran, Alfonso Picabea, Iker Sarriegui.

**KARLISTEN ARTILERIA (Artillería Carlista: Urgull Histórico):** Francisco Álvarez (kapitaina), Felix Curiel, Luis Álvarez, David Vega.

**TXISTULARI, MUSIKARI ETA DANBOR KARLISTAK**

**ANDOAINGO TXISTULARI BANDA:** Joxema Setien, Gotzon Huitzi, Fernando González, Iñaki Egibar, Jon Mikel Mujika, Lurdes Pagola, Josune Orbegozo, Ibai Iradi, Nerea Arregi, Xabier Jauregi, Jon Ander Belamendia, Iñaki Aizpurua, Ane Iartza, Garbiñe Fernández, Mª Karmen Ganzarain.

**MUSIKA BANDA:** Eugenio Delgado (tuba, Juanfe Moyano (tronboia), Alberto Eguzkitza (bonbardinoa), Aingeru Zabala (tronpeta), Edorta Setien (tronpeta), Alejandro Terrones (saxoa), Agustin Mazkiaran (saxoa), Mikel Mate (saxoa).

**ONTZA ELKARTEKO DANBORRAK:** Amaia Bakero, Bea Zalakain, Sonia Felipe, Koro Collantes, Almudena Ramos, Lorena López, Patxi Mendikute, Imanol Etxeberria.

## LIBERALEN GUDAROSTEA (Ejército liberal)

Juan Karlos Erasun (O'Donell jenerala)
Mikel Moreiro (brigadierra)
Roger Wesney (O'Connors koronela)
Patxi Martínez (laguntzailea)
Aritz Irazusta (banderaduna / abanderado)

**BRIGADA BRITAINIARRA**

**(LARRAMENDI BAZKUNA):** Oihana Albisu, Mikel Mendizabal, Mikel Iriarte.

**(ASOCIACIÓN URGULL HISTÓRICO):** Braulio Barreiro, Manuel Marín, Iñaki Gurmendi, Ramon Álvarez, Asier Letamendi, Ander Curiel.

**(ASOCIACIÓN BLAS DE LEZO):** José Ignacio Martínez, Jorge Garbayo, Fernando Martí-

nez, Ángel Cortés, Irene Cortés, Ismael Colas, Asier Calvo, Aitor Ruiz, Ramiro Bendoiro, Raúl Hierro, Jon Aragón, Fernando Martínez, Carlos Garbayo.

**(ASOCIACIÓN BATALLA DE VITORIA):** Raúl Mendo, Fco. Javier Macías, Pablo Valle, Eneko Ullibarri, Gorka Valle, José Ramón Palacios, Pedro Martínez, Juan Miguel Fernández, Asier Merino, Iñigo Gorrotxategi, Fco. José Del Río, Igor Marcos, Iagoba Ferreira, Fernando Benito, Emilio Udaeta, Alfonso López.

**TXAPELGORRIAK (Isabel II bolondresen batailoia):** Lanberto Otermin (tenientea), Ibon Lekuona (sarjentua), Paco Recio (kabua), Pako Arnaiz, Jose Joakin Garin, Joxe Ipintza, Oihana Lekuona, Cristobal Lizaso, Jose Mari Lizaso, Xabier Zabala, Jose Mari Conde.

